



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

# Energia irisgarria eta ez kutsagarria

ESKOLAKO AGENDA 2030

2024EKO URTARRILA

## UROLA KOSTA

2023-2024 IKASTURTEA



7 ENERGIA IRISGARRIA  
ETA EZ KUTSAGARRIA



## ZER DA EA2030?

Eskolako Agenda 2030 Nazio Batuen Erakundeak sustatutako programa bat da, hezkuntza-komunitatearen konpromisoa eta ikastetxearen eta haren ingurunearen ingurumena eta alderdi soziala hobetzeko ekintza plana da.

Jarrian, Eskolako Agenda 2030en funtsezko oinarriak zerrendatzen dira:


- Eskolaren ingurumena hobetzea
- Berrikuntza eta hezkuntza-kalitatea lortzea
- Tokiko komunitatean parte hartzea

Programa hau, Nazio Batuen 17 Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH) orinarriz da. Ikasturte bakoitzean, GJH bat aukeratzen da, eta horren inguruan lantzen da programa. Gaia aztertu eta eskolaren eta eskolako ingurune hurbilenaren egoeraren diagnostikoa egiten da. Azkenik, ikastetxeak hobetu beharreko ekintzak definitu eta abian jartzen dituzte eta udalari hiria hobetzen laguntzeko ekintzak proposatzen dira.



## 2023-2024 IKASTURTEA


Aurreko ikasturtean abiatutako lanei jarraipena emanez, 2023-2024 ikasturtean zehar 7. Garapen Jasangarrirako Helburuaren inguruan lan egingo dugu, energia eskuragarria eta ez kutsagarria lortzea helburu duena. Horrela, 2022-2023 ikasturtean eginiko diagnostiko eta proposamenei heldu diogu eskualdeko ikastetxeek. Helburua, pasadan urteko ideietatik abiatuta esku-hartze plan bat garatzea da. Esku-hartze plan honek herri mailan energia eskuragarri eta ez kutsagarria lortzeko ekintzak burutzea bilatzen du, horretarako EA2030 programan dauden udalerriko ikastetxe guztiek parte hartuko dugularik.



Ikasturte honetan, 4 udalerriko 12 ikastetxeek hartuko dute parte EA2030 programan, hau da, 5.099 ikasle guztira. Zehazki, hurrengo ikastetxeek hartuko dute parte: Antoniano Ikastetxea, La Salle Ikastetxea, Salvatore Mitxelena Ikastola, Lizardi Institutua, Orokieta Herri Ikastola, Oteitza Lizeo Politeknikoa eta Monte Albertia ikastetxea Zarautzen, Zestoako Aizarna LHI eta Arroa LHI ikastetxeak, Zumaiena eta Zumaia BHI ikastetxeak Zumaian eta Iturzaeta Herri Eskola Getarian.

## LEHENEGO URRATSAK

2023-2024 ikasturteko programa martxan jartzeko lehenengo pausua eskola arteko foroa da. Foro honetan, udalerrri bakoitzeko eskola guztiak batu egiten dira aurreko ikasturtean landu zutena erreperatu eta ikasturte honetan landuko denari hasiera emateko.



Eskola arteko foroaren bidez, esku-hartze plana finkatzen hasiko dira ikasleak. Izan ere, herri mailan burutu daitezkeen eta energiarekin lotuta dauden ekintzen azterketa eta hautaketa gauzatzeko lehenengo pausua da.


## 1. ESKOLA ARTEKO FOROA

Azaroko eta abenduko hilabeteetan zehar, EA2030eko 2023-2024 ikasturteko programaren lehenengo eskola arteko foroak ospatu ditugu. Ekitaldi hauetan ikasleek iazko ikasturtean proposaturiko ideiei heldu eta dinamika bat burutu dugu, non hurrengo 5 irizpideetan oinarrituta, proposaturiko ekintza bakoitza herri mailan burutzeko duen bideragarritasuna aztertu dugun:

1. Klean egin daiteke
2. Ikastetxe guztiek parte hartu dezakete
3. Ikasleak protagonistak dira
4. Udalak jarritako baliabide kopurua txikia da
5. Bisibilitatea

Ebaluaketa honen ostean irizpide gehiago betetzen dituzten ekintzak hurrengo hilabeteetan zehar landuko dituzte ikasleek geletan. Izan ere, ideia bilduma honetatik herri mailan gauzatzeko ditugun ekintzak aterako ditugu.





## HURRENGO PAUSUAK

Eskola arteko foroetan ateratako ekintzak landu behar ditugu orain! Horretarako, hurrengo hilabeteetan geletan dinamika ezberdinak burutuko dira azkenik herri mailan gauzatuko den ekintza zehaztu eta martxan jartzen hasteko.

Goazen ba!

# ESKOLAKO AGENDA 2030 UROLA KOSTAN